

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Ibilgailuak kentzeari buruzko jakinarazpena

Errekerimendua jakinaraztea zerrendan agertzen diren ibilgailuen titularrei, beren helbi-deetan ezezagunak direlako edo antzeko arrazoiengatik, itxura batean abandonatuta utzitako ibilgailuak Amurrioko Udalaren biltegitik jaso ditzaten.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz, jakinarazpena iragarki honen bidez egiten da, ezinezkoa izan baita errekerimendua zerrendatutako ibilgailuen titularrei jakinaraztea, beren bizilekuan ezezagunak direlako, jakinarazpenaren titularra ezezaguna delako edo, saiatu arren, ezin izan delako egin.

Beheko taulan agertzen den ibilgailua, DGTren datu basearen arabera zurea dena, Amurrioko Udalaren biltegian dago, abandonatuta egoteko itxura guztia baitzuen eta Udaltzaingoak bide publikotik kentzeko bidalitako errekerimenduari ez baitiozu jaramonik egin.

Hilabeteko epea duzu, iragarki hau argitaratzen denetik, ibilgailua biltegitik jasotzeko, garabiaren eta udal biltegian eduki eta gordetzearen tasak ordainduta, 7 zenbakiko zerga ordenantzak 11. eranskinean xedatutakoaren arabera, zeinak arautzen baititu bide publikoan aparkatutako ibilgailuak kendu eta biltegian gordetzearen tasak (2012ko abenduaren 26ko ALHAO, 149. zk.).

Epe horretan ibilgailua jasotzen ez baduzu, ofizioz eskatuko da ibilgailu horren baja eta gero deskutsatzea, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Trafikoaren, Motor Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren Legeak 71.1 artikuluan xedatutakoaren arabera; gainera, zehapen espedienteak hasiko da Hondakin eta Zoru Kutsatuen uztailaren 28ko 22/2011 Legea hausteagatik.

Amurrio, 2020ko azaroaren 3a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA

ESP.	MATRIKULA	TITULARRA	HEBIDEA	HERRIA
20027Y	0172-FBN	D. N. N.	MARÍA DÍAZ DE HARO KALEA 26, 2. EZK.	BILBAO